# PERTSONA FISIKO BATEN ZERGA-ORDEZKARITZA ESKATZEA

1. Eskabidea ordezkariak hasi behar du. Horretarako, Gipuzkoatarian sartu beharko duzu, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako identifikazio-bitartekoren bat erabiliz.



2. Ordezkaritza-eskaera hasteko, "Ordezkaritzen alta eta kudeaketa" aukera hautatu behar da.



3. Hautatu "Zerga ordezkaritza berri baten alta".



4. Ordezkariaren helbide elektronikoa sartu eta klikatu "JARRAITU" botoian. Ordezkaritza-eskaerari alta emateko edo uko egiteko komunikazioak, eta, hala badagokio, ordezkatuari jakinarazpen elektronikoak eskura jartzeko abisuak, helbide honetara bidaliko dira.



5. Sartu ordezkatutako pertsonaren datuak eta klikatu "JARRAITU" botoian.



6. Adierazi ordezkaritzaren edukia eta iraupena. Klikatu “JARRAITU” botoian.



7. "ESKABIDEA SINATU". Sinatu ondoren, eskabidea ordezkatutako pertsonak balioztatu zain geratuko da.



8. “Dokumentazioa aurkeztu”. Ordezkatuak eskaera balioztatu beharko du aurreikusitako moduren batean. Ordezkaritza triangulazio bidez edo notarioaren aurrean legeztatutako sinaduraren bidez balioztatzea erabakitzen bada, dokumentazioa erantsi beharko da.



9. Agiriak aurkeztea “EXAMINAR” klikatuz. Dokumentua identifikatu, izenburua eta data adierazita. Klikatu "JARRAITU" botoian.



10. “SINATU ETA BIDALI”.

